



BIDELAGUNTZA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oeko eta Herritarren Partaidetzarako zerbitzuaren **prestakuntza-ekimena** da, eta udal ordezkari politikoak eta teknikariak trebatuz, herritarren bizi-kalitatea eta aukerak hobetzea du helburu, partaidetzaren inguruko ezagutza lurralde osoan zabalduz.

Bizia eta malgua izan nahi du, tokian tokiko errealitatera eta eskaerara egokituko dena.

Zerbitzuak **Gipuzkoako Eskola Irekia** abian jarri du **bi helburu nagusirekin**:


- Eragile desberdinen aukerak areagotu eta gaitasunak hobetzeko baliabideak eskaini nahi dituelako, azken batean, horiek gobernantza publikoan hartzen diren erabakietan duten eragin ahalmena handitu eta politika publikoak hobetzeko helburuarekin.
- Demokraziaren kalitatea eta gizarte-kohesioa hobetzeko bitarteko izan daitekeelako.





Marko honen baitan kokatzen da parte hartzeko gaitasunak garatu eta ezagutzen sakontzeko diseinatu berri dugun **“Udalak, partaidetza eta ekintza komunitarioa” trebakuntza-prozesua**. Legegintzaldi berriaren testuinguruan, partaidetza eta ekintza komunitarioa udaletan sustatu eta egituratzeko lagungarriak diren gaiak jorratzea da helburua.

Zehazki, **ikuspegi hauetatik** jorratu nahiko genituzke:





Gai horiek lantzeko **honako jarduerak** eskainiko dira. Bertan topatu daitezke izen-emateko lotura eta baldintzak ezberdinak:

JARDUNALDI-ZIKLOA

Partaidetza eta ekintza komunitarioaren inguruko aurrez aurreko jardunaldi irekiak:

URRIAK 19: Herri ertain eta handiak.

URRIAK 21: Herri txikiak.

Baldintzak eta
izen-ematea



TREBAKUNTZA-TAILERRAK

Partaidetza eta ekintza komunitarioan sakontzen jarraitzeko trebakuntza-tailerrak, udal bakoitzera egokitutakoak (udal mailan). **2023ko azarotik 2024ko apirila arte.**

1. Nola sustatu herritarren parte hartzea udaletik?
2. Udaletako partaidetza gune, espazio eta prozesuen kalitatean sakontzen.
3. Ekintza komunitarioaren estrategiatan sakontzen.
4. Nola txertatu ikuspegi komunitarioa gure zerbitzu eta ekipamendutan?
5. Partaidetza eta ekintza komunitarioa herri txikietan.



TREBAKUNTZA-PILULAK

Gai eta formatu anitzeko eskaintza, behar desberdinei erantzuteko urtean zehar, **2024ko urtarriletik aurrera.**





TREBAKUNTZA-TAILERRAK

Trebakuntza-tailer hauek teoria eta praktika uztartuz garatuko dira, hautatutako gaiaren inguruko oinarrizko ezagutza eskuratzeko prestatuta daude, eta saiakera egingo da udaleko errealitatera ahalik eta gehien egokitzeko.

TAILER EZBERDINAK

1. Nola sustatu herritarren parte hartzea udaletik?
2. Udaletako partaidetza gune, espazio eta prozesuen kalitatean sakontzen
3. Ekintza komunitarioaren estrategiatan sakontzen
4. Nola txertatu ikuspegi komunitarioa gure zerbitzu eta ekipamendutan?
5. Partaidetza eta ekintza komunitarioa herri txikietan

NORK ESKATU ETA NORK HARTU DEZAKE PARTE?

Prestakuntza saio hauen **hartzaille nagusiak udal ordezkari politikoak eta udalean edo udalarentzat lan egiten duten pertsonak** izango dira.

Udalak egingo du trebakuntza-tailerrean parte hartuko dutenen aukeraketa. Udal bakoitzak tailer mota bakarra eskatzeko aukera izango du.

KOPURUA

Gutxienez 10 pertsonako taldea sortu beharko da.

2500 biztanletik beherako herrien kasuan:

- a) Gutxienez 8 pertsonako taldea sortzeko aukera egongo da.
- b) Eskaera udalerrri bat baino gehiagoren artean egiteko aukera egongo da.
- c) Udaleko jardueratik kanpo dauden udalerrriko herritar edo eragileek parte hartzeko aukera egongo da.

**taldea osatzeko zailtasunak izatekotan, harremanetan jarri Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzako Zerbitzuarekin.*





TAILERREN FORMATUA

8 ordu arteko trebakuntza-tailerrak dira.

Udala eta trebakuntza-taldearen artean adostuko da saioen proposamen zehatza: datak, ordu/saio kopurua, tokiak eta helburu zehatza.

2023ko azaro bukaera/abenduan hasi eta 2024ko apirila bitartean garatzeko aukera izango da.

ESKAERA-PROZESUA



Udalek **eskaera** egin ahal izango dute **Gipuzkoako Eskola Irekiko loturan** sartu eta udalen ekintzatan klik eginda.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaerak aztertu, eta udal bakoitzari jakinaraziko dio berea onartu edo baztertu egin ote den.

Eskaerak baloratzeko orduan, **kontuan hartuko dira zenbait irizpide**, hala nola, **udalen tamaina**, udalaren **balibideak** eta **udalak Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioarekin duen lotura**.

Tailerrak egiteko egutegia eta hurrenkera udal guztiek egiten duten eskaera orokorrak baldintzatuko du.

IZEN-EMATEA

Trebakuntza-tailerren **eskaera egiteko epea urriaren 20an zabalduko da eta azaroaren 7an itxiko da**. Azaroaren bukaeran hautatuak izango diren udalei jakinaraziko zaie, eta hortik aurrera tailerrak aktibatuko dira.

Izen-ematea





PROGRAMAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Programa honetan parte hartzeak ekar dezake udala eta Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko eta Sozialeko Zuzendaritzaren arteko elkarlana indartzeko bideak aztertzea. Nolanahi ere, programan parte hartzeko **gutxienez honako baldintzak onartu** beharko dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak bere gain hartuko ditu programaren diseinuaren kostuak, trebatzaileen ordainsariak, programaren komunikazio orokorra eta honen kudeaketa lurralde mailan.
- Udalak bere gain hartuko ditu prestakuntza-jarduerak uddalerrian sor ditzakeen kostuak: lokala, argia eta soinua; taldea osatzea, haiekin harremana eta komunikazioa.
- Prestakuntza-jarduerak gauzatu ahal izateko, gutxienez 10 pertsonako taldea sortu beharko da, herri txikien kasuan 8 pertsonakoa. Udalak horien asistentzia bermatzeko ardura izango du.
- Udalak konpromisoa hartzen du haren izenean arituko den pertsona bat izendatzeko: bertan izandako esperientzia beste udalekin partekatu zein sinergiak sortzeko eta programaren ebaluazioan parte hartzeko.

KONTAKTUA

**Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzua -
Gipuzkoako Foru Aldundia**

✉ partaidetzaespazioa@gipuzkoa.eus

☎ 943 112 203 / 943 112 289





ZEIN DA UDALAREN INTERESEKOA IZAN DAITEKEEN TAILERRA?

1. NOLA SUSTATU HERRITARREN PARTE HARTZEA UDALETIK?



HELBURUA DA...

Udaleko langile eta ordezkari politikoekin udalerriko herritarren partaidetza sustatzeko eta partaidetza hori udalaren funtzionamenduarekin integratzeko nozioak jasotzea eta udala horretara egokitzeko eman beharreko urratsetan hausnartzea.



ZEHAZKI BILATUKO DUGU...

- Herritarren partaidetzaren inguruko ulermen desberdinak partekatu, eta ikuspegi bateratu bat sortzea.
- Udalean eta herrian partaidetzaren inguruko ibilbidearen irakurketa autokritikoa egitea.
- Udalaren eta herriaren partaidetza-momentuaz jabetzea.
- Udalera eta herrira hobekien egokituko den etorkizun hurbileko partaidetza-ereduaz hausnartzea.

Herritarrek udal politiketan parte hartu ahal izateko bideak eskaini nahi dituzue? Udalean eta udaletik egin beharrekoa egituratu nahi duzue? Hau da zuen tailerra.





2. UDALEKO PARTAIDETZA GUNE, ESPAZIO ETA PROZESUEN KALITATEAN SAKONTZEN



HELBURUA DA...

Udalak martxan dituen partaidetzarako kanal, gune eta bitartekoen inguruan hausnartzea eta kalitatezko partaidetza lortzeko hainbat gako eta gomendio identifikatzea.



ZEHAZKI BILATUKO DUGU...

- Udalean partaidetza-estrategia planifikatzeko markoa landu, eztabaidatu eta kokatzea.
- Partaidetza-eredua garatzeko kanal, gune eta bitartekoen sistemaz eta legealdirako arkitekturaren diseinuaz hausnartzea. Eta honetaz gain, erronkak eta berrikuntzak adostu maila edo dimentsio ezberdinen arabera (herritarrak, udal egitura teknikoak, talde eta ordezkari politikoak).
- Legealdirako partaidetzaren planifikazioa lantzea eta kalitatezko partaidetza lortzeko partaidetza-kanalak, partaidetza-mailak eta -izaerak, -espazioak, eta -dinamikak legealdian zehar modu koordinatuan kokatzeak duen garrantzia azpimarratzea.
- Partaidetzaren inguruan udalaren balorazioa eta ebaluazioa: kualitatiboki eta kuantitatiboki kalitatezko partaidetza lortzeko hainbat gako eta gomendio. Tokiko partaidetzaren adierazleak kokatzea.

Partaidetzarako gune edo prozesuak dituzue, baina ez zaudete egiten den horrekin bereziki gustura? Ereduarekin edo egiten denaren inguruko kezkek dituzue? Horiek berrikusi eta haien kalitatea hobetzeko saiakera egin nahi duzue? Hau da zuen tailerra.





3. EKINTZA KOMUNITARIOAREN ESTRATEGIETAN SAKONTZEN



HELBURUA DA...

Udaleko kideen artean hausnarketa partekatua sortzea, tokikotasunetik ekintza komunitarioko estrategiak hedatzeko behar eta aukeren inguruan, eta administrazio publikoak zeregin horretan dituen rolen inguruan gogoeta eginez.



ZEHAZKI BILATUKO DUGU...

- Udaleko kideen artean hausnarketa partekatua sortzea, tokikotasunetik ekintza komunitarioko estrategiak hedatzeko beharrei eta aukerak aztertuz. Zehazki, sare komunitarioa egituraketan administrazio publikoak (erraztea eta eraikitzea) dituen rolei buruz hausnartzea proposatzen da.
- Komunitate ekintzak izan behar dituen ardatz nagusiak definitzea eta mugatzea, tokian tokiko ezaugarrien eta aukeren arabera. Zehazki, tokiko agertokian GFAk definitutako esparruan 5 estrategiak eta 7 printzipio metodologikoak nola egokitu hausnartzea proposatzen da, horiek zabalduz eta/edo moldatuz.
- Erakundeen ikuspegitik, komunitate ekintzarako estrategiak hedatzea zailtzen duten nodo eta aldagaiak identifikatzea. Zehazki, ikuspegi politikotik eta teknikitik zehaztu eta identifikatu nahi dira komunitate ekintzaren hedapenari eragiten dioten aldagai eraginkorrenak, 5 ortzi-muga estrategikoetan duten posizioan oinarrituta.
- Udal-estragiatik aktibatzeke lehentasunezko subjektuak eta espazioak identifikatzea, komunitate-sarea zabaltzeko. Zehazki, espazio formalak eta informalak identifikatu nahi dira, antolatutako edo antolatu gabek, asoziatiboak edo ekipamenduzkoak, 7 printzipio metodologikoetan oinarrituta aktibatu daitezkeenak.

Zein da udalaren rola ekintza komunitarioan? Zertan eta nola eragin dezake? Nondik eta nola hasi? Gogoeta hauek zure udalera eraman nahi badituzue, hau da zuen tailerra.





4. NOLA TXERTATU IKUSPEGI KOMUNITARIOA GURE ZERBITZU ETA EKIPAMENDUTAN?



HELBURUA DA...

Udaleko zerbitzuetan ikuspegi komunitarioa txertatzeko ariketa praktikoa egitea, lan egiteko moduetan eragiteko.



ZEHAZKI BILATUKO DUGU...

- Udaletan ikuspegi komunitarioarekin aritzeak eraldaketa sustatzeko daukan balioaz jabetzea.
- Udalak eta udal-zerbitzuek ekintza komunitarioaren inguruan dituzten aurrezagutza eta praktikak ezagutzea.
- Udaleko praktikatik abiatuta, udalean ikuspegi komunitarioa txertatu edo garatzeko eman beharreko urratsak irudikatzea eta horretarako, eman behar diren barne- eta kanpo-baldintzak identifikatzea.
- Udalaren egunerokoan, udal-zerbitzuetan ikuspegi komunitarioa txertatu edo garatzeko jarraibideak ematea.

Udaleko zerbitzu edo ekipamenduetatik – liburutegi, kultur etxe, kiroldegi, gazteleku...– bizi-tza komunitarioari ekarpena egiten diogu? Herritarren inplikazioa eta protagonismoa errazten dugu? Ikuspegi inklusibo batetik lan egiten dugu? Gogoeta hauek zure udalera eraman nahi badituzue, hau da zuen tailerra.





5. PARTAIDETZA ETA EKINTZA KOMUNITARIOA HERRI TXIKIETAN



HELBURUA DA...

Herri txikien dinamikara egokitutako erantzunak sortzea herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioa ardatz izanik.



ZEHAZKI BILATUKO DUGU...

- Herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioaz ari garenean zertaz ari garen argitzea: tokian toki izandako ibilbide eta eskarmentuari arreta jarriaz.
- Herri txikien errealitatean, herritarren partaidetza edota ekintza komunitarioa garatzeko elementuen inguruan fokua jartzea eta lanketa egitea: zer zaindu, zer landu, zer baldintza, etab.
- Tokian toki herritarren partaidetzan eta ekintza komunitarioan aurrera egiteko prototipatzeko ariketa bat egitea.

2500 biztanletik beherako herria(k) zarete eta herritarren partaidetza eta ekimena areagotu edo gaiaren inguruan gogoeta egin nahi duzue? Zuen neurria sortutako erantzunak nahi dituzue? Hau da zuen tailerra.

